

ESKOLA-BITARTEKARITZAREN PROZESUA –Gidoia-

I.- AURKEZPENA ETA HASIERA BITARTEKARIAK

Bitartekariak kontrolatu eta zuzenduko du prozesua uneoro. Lehen fasean bitartekaria prozesua irekitzeaz arduratuko da. Hasieran giro positiboa eta konfiantzazkoa sortzea giltzarria da bitartekaritzaren garapenerako.

B	B
↓	↓
A	A

Saioari hasiera emango diogu ...

- **Ongi etorria eta aurkezpenak egin**
 - Kaixo, arratsalde on. Guetagara eta gaur bitartekariak izango gara.
 - Zuek eta zarete.
- **Doinu positiboa eta konfiantzazkoa jarri.**
 - Pozten gara pausu hau eman duzuelako eta zuen arazoa era baketsuan, hitz eginez konpontzeko prest zaudetelako.
 - Doinu positiboa eta konfiantzazkoa prozesu osoan zehar sortzen da.

Bitartekaritza azalduko dugu...

- **Bitartekaritza azaldu, bere balioa eta oinarriak**
 - Hasi aurretik, bitartekaritzaren puntu garrantzitsu batzuk gogorarazi nahi dizkizueguBitartekaritza-bilera honen helburua da zuek Bitartekaritzan erabakiak
 - Halaber, garrantzitsua da denok argi izatea bitartekaritzadela (bitartekaritzaren oinarriak: konfidentziasuna, boluntariotasuna...)
- **Bitartekariaren eta aldean papera argitu**
 - Bitartekariada eta bere paperadatza eta egin behar ez duguna da
 - Zuen lanadatza
- **Prozesuaren faseak berrikusi**
 - Bitartekaritza honetan, lehendabizi arau batzuk jarriko ditugu bilerak hobeto funtzionatzeko. Ondoren bakoitzak zer gertatu den eta arazoa zein den kontatzeko aukera izango du. Jarraian, hizketan jarraituko dugu elkar hobeto ulertu arte. Azkenean, irtenbide desberdinak pentsatuko ditugu eta biontzat baliagarria izango den akordioa lortzen lagunduko dizuegu.
- **Zalantzak argitu (lehen fase osoan zehar)**

Oinarrizko arauak jarriko ditugu...

2.- ALDEEN HASIERAKO DISKURTSOA

Alde bakoitzak gatazkaren bere bertsioa kontatuko dio bitartekariari. Bitartekariak entzun eta oharrak jasoko ditu gatazkako *gai* nagusien inguruan. Hizketarako denbora eta txanda berdinak izatea neurtuko du.

B	B
↑	↑
A	A

Gatazka kontatzen hasiko den pertsona aukeratuko dugu

- Mesedez, zer gertatu zen konta dezakezu (zer gertatu zen, pertsona nola sentitu den, nola bizi izan duen, nola eragiten dion, ...)
- Saihestu egingo ditugu etenak.
- Aktiboki entzungo dugu eta galderak egingo ditugu.
- Gai nagusiak idatzi egingo ditugu.

Gauza bera errepikatuko dugu beste pertsonarekin

- Mesedez, zuk ere kontatu zer gertatu den.
- Saihestu egingo ditugu etenak.
- Aktiboki entzungo dugu eta galderak egingo ditugu.
- Gai nagusiak idatzi egingo ditugu.

I. ALDEA	2. ALDEA

Landu beharreko gaien zerrenda egingo dugu.

- Gatazka landu beharreko gaietan banatuko dugu.
 - Kontatu diguzunaren arabera.....gairik nagusienaklirateke. Besterik gehitu nahi duzu?
 - Galdera hau bi aldeei egingo diegu.

3.- TRUKAKETA

Bitartekariak aldeen arteko komunikazioa erraztu egiten du, gatazkaren ulerkuntzan sakontzea du helburu, pertsona bakoitzak ezagutu dezala bestearen pertzepzioa, alde bakoitzaren interesak identifikatzea bilatzen du eta usteak eta interpretazioak argitzea. Gainera, alde bakoitza bestearen tokian jar dadin saiatzen da.

B B

A ⇒ A
←

Gai bat aukeratu eta aldeetako bat gai hori sakontzera gonbidatuko dugu

- Gehixeago esplika dezakezu
- Zer esan nahi du zuretzat
- Esplikaturi zergatik sentitu zinen horrela.
- Ba al dari egin nahi diozun galderaren bat?

PARAFRASEATU, ISLATU ETA EMOZIOAK BALIOZTATUKO DITUGU, KOMUNIKAZIOA BIRKOKATUKO DUGU, ARGITU, LABURBILDU EGINGO DUGU...

Interesak identifikatuko ditugu

- Zergatik da garrantzitsua zuretzat
- Zein abantaila ditu zuretzat horrek?

Rolak trukatu ditugu

- Nola sentituko zinen zu gauza bera gertatu izan balitzaizu?
- Zergatik uste duzuegin zuela hori? Nola erreakzionatuko zenuen zuk?
- Zergatik uste duzurentzat garrantzitsua dela

Azpimarratu egingo dugu informazio eraikitzaile guztia gatazka konpontzeko.

- Puntu komunak/iritzi bera: esaten duzuenaren arabera, badirudi biontzat oso garrantzitsua dela zuen lagunak errespeta ditzaten.
- Bestearen onarpena: esaten duzu orain ulertzen duzula zergatik erreakzionatu zuen horrela
- Ardurak hartzea: Beraz, uste duzu neurritz kanpokoia izan zelari era horretan oihu egitea.
- Azpimarratu beste edozein ahalegin laguntzaile.

Hurrengo fasera igaroko gara

- Aintzat hartu aldeek orain arte egindako lana eta ahalegina: asko ari gara aurreratzen eta ahalegin izugarria ari zarete egiten.
- Hitz egiten eta argitzen aritu garen guztiaren ondoren, bada zerbait orain ulertzen duzuna/dakizuna eta lehen ez?, zer?/ Nola aldatu da arazoarekiko zure ikuspegia?
- Uste duzue momentua dela arazo honi irtenbideak bilatzen hasteko?

4.-IRTENBIDEEN BILAKETA ETA EBALUAZIOA

Aldeek balizko irtenbide batzuk identifika ditzaten
lagunduko du bitartekariak eta baita irtenbide bakoitzaren
abantaila eta desabantailak ebalua ditzaten ere.

B B

Beharrezkoa da gaietako bakoitzean komunikazioa
bere aldetik fokatzen jarraitzea.

A ⇒ A
←

Irtenbiderako ideiak sortuko ditugu

- Zein ideia bururatzen zaizkizu..... konpontzeko?
- Zer egin dezakezu zuk-tzeko?
- Ideia zaparrada bat egingo dugu. Honetan datza:
- Zer egin dezakezu zukklortu dezan laguntzeko?

Lankidetzarako motibatuko dugu

- Zer gertatuko da irtenbide bat lortzen ez baduzue (kasurik txarreanean/kasurik onenean)?

Irtenbiderako ideiak ebaluatuko ditugu

- Zein abantaila/desabantaila ditu zuretzat
- Zein abantaila/desabantaila ditu zure kidearentzat
- Zer aldatu behar duzu hau posible izan dadin.....?

5.-AKORDIOA EGIN

Bitartekariak aldeekin akordioaren xehetasunak berrikusiko ditu, alderdi guztiak zehaztuko ditu eta bere balioa egiaztatuko du; izan ere, akordioak inklusiboa izan behar du. errealista eta oso zehatza izan behar du. Azkenik, akordioa idatzi, sinatu eta saioari bukaera emango diogu.

Akordioaren xehetasunak zehaztuko ditugu

- Beraz, ados zaude, nola/noiz egingo duzue hori?
- Uste duzue honekin konponduta geratuko dela arazoa?
- Beste zerbait gehitu nahi duzu?
- Egokia iruditzen zaizue akordioa idaztea? Akordioa irakurri egingo dugu, puntuz`puntu oniritzia eskatuz aldeei.

Egindako lana azpimarratuko dugu eta saioari amaiera emango diogu

- Bitartekaritza oso ondo joan da eta zoriendu egin nahi zaituztegu lortu duzuen akordioarengatik.
- Uste duzue garrantzitsua dela pertsonaren bati akordio hau jakinaraztea?
- Etorkizunean antzeko arazoren bat izango bazenute, zer egingo zenukete?
- Hemendik egun batzuetara bildu gaitzke berriro eta gauzak nola doazen berrikusi, akordioa ondo betetzen den ikusi, zer iruditzen zaizue?, noiz? (hala badagokio)